

KAMISETA DISEINU LEHIAKETA

-EUS-

Parte-hartzailearen baldintzak

Gutxienez 18 urte dituen artista, diseinatzaile, sortzaile eta oro har Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren laguntzat dago zabalik.

Parte-hartzearen baldintzak

2020 edizioan Zegama-Aizkorriko (maratoia, KB eta Junior) parte hartzaile guztiei banatuko zaien kamiseta diseinatu beharko dute, diseinu grafikoa librea izanik. Lehiaketan parte-hartzeak baldintza hauek onartzea dakar. Parte-hartzaileak kamisetaren motiboak aukeratu ditzake eta gehienez hiru kolore erabili ahal izango dituzte. Kamisetak neurri eta modelo ezberdinetara egokituko dira eta inpresio-lanaren eremua zehatza izango da, soilik aurrealdea. Lanak horretara egokituko dira serigrafia.

Diseinua joango den kamiseta modelo eta koloreak:

Maratoia: Kolorea -> Pantone Meadowbrook (#60A0A3)


Modeloa: Gizonezkoa -> [Salomon EXPLORE POLO M](#)

Emakumezkoa-> [Salomon COMET CLASSIC TEE W HEATHER](#)



Kb eta Junior: Kolorea -> Beltza (#000000)

Modeloa:





KAMISETA DISEINU LEHIAKETA

Diseinuak "Zegama Aizkorri" izena eraman behar du derrigorrean eta 2020 urtea. Halaber, diseinuak testuren bat izatekotan, euskaraz izan beharko da.

Parte-hartzaileek beren diseinuak (bi gehienez) PDF, JPG, Tiff (beti 300dpi) edo Illustrator formatuetan, posta elektronikoz beren datuekin (izena, abizenak, helbidea, telefono-zenbakia, jaiotza-data, nortasun agiri zenbakia) honako helbidera bidali beharko dituzte: zegama.aizkorri@gmail.com
Irabazleak diseinua bektorizatua bidali beharko du irabazlea dela jakinarazten zaionean.

Diseinuak egokitutako webgune batean eskegiko dira publikoak bere botoa eman dezan (martxoaren 2tik 8ra).

Diseinuarekin batera testu labur bat bidaliko da diseinuaren izenburua eta esanahia azalduz.

Eskubideen lagatzea

Parte-hartzaileak komunikazio publikorako eskubidea lagatzen ditu. Parte-hartzaileak onartzen du, irabazle izateko kasuan, "Zegamako Udala"-ri emango dizkiola erreproduktzio, banatze, komunikazio publiko, merkaturatze eta diseinuen eraldatze- eskubideak. Parte-hartzaileak berak baino ez du erantzungo hirugarrenen edozein erreklamazioen aurrean, bai jabego intelektualaren eskubideei dagokienean bai "Zegamako Udala"-ri emandako edo honek erabilitako eskubideekin lotutako beste edozein erreklamazio delarik.

Eskubideen ematea Zegamako Udala-ren izenean, hirugarrenei emateko eskubidea barne, hamar urteko epeaz eta mundu osorako ustiapenerako izango da.

Irabazlearen aukeraketa

On-line bozketak. Publikoak bere hiru diseinu gustukoena aukeratu ahal izango ditu webgunean. Ondoren epaimahaiak, irabazlea aukeratuko du, publikoak gehien bozkatutako 20 diseinuen artean.

Epaimahaia: Zegama Aizkorri Mendi Maratoiko antolakuntza.

Lehiaketaren epeak

Diseinuen aurkezpena **2020ko otsailaren 29a** arte.

Publikoaren aukeraketa **2020ko martxoaren 2tik 8ra**.

Organización Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia Antolakuntza
Tel: 943 801115 | Email: zegama.aizkorri@gmail.com
www.zegama-aizkorri.com

KAMISETA DISEINU LEHIAKETA

Ondoren, epaimahaiak irabazlea aukeratuko du eta zein den diseinu irabazlea iragarriko da gure sare sozialetan.

Sariak

Saria 2020 edizioko gure edozein lasterketarako dortsal bat izango da, maratoj, kb edo junior trail distantziarako. Aukeratutako lasterketa eta bertan lehiatuko denaren izena irabazlea dela jakinarazten zaion momentuan esleitu beharko da.

Parte-hartzaileen baztertzea

Diseinuak baztertuko dira ondorengo kasuetan:

- 1- Aurkeztutako diseinuak ez duenean bat egiten proposatutako gaiarekin.
- 2- Antolatzaileek susmoak dituztenean on-line bozketaren prozesuan modu artifizial edo iruzurrezkoak erabili direla berezko bozketak areagotzeko eta kopuruak handitzeko.
- 3- Aurkeztutako diseinuak bere edukiagatik gustu txarrekoak zein iraingarriak gerta daitezkenean.
- 4- Parte-hartzaileak edozein modutan deialdiko oinarrietan zehazten dena betetzen ez duenean; hori dela eta, antolatzaileek eskubidea dute parte-hartzaileei baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko ziurtagiriak eskatzeko.


Datu pertsonalak

Parte-hartzaileek beraien diseinuekin batera emandako datu pertsonal guztiak 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa-ren arabera gordeak eta erabiliak izango dira. Datuen tratamenduen arduraduna Zegamako Udala da, zein lehiaketako parte-hartzaileen datu pertsonalak gorde eta erabiliko dituen lehiaketako baldintzak betetzeko eta parte hartzen duten pertsonak informatuta izateko helburuarekin. Ez zaizkio beste inori emango tratatutako datuak eta bildu diren helburua bete arte behar den denboraz gordeko dira. Parte-hartzaileek beren atzipen-, zuzenketa-, ezabapen-, mugatze- eta aurkaritza-eskubidea erabili ahalko dute Zegamako Udalaren aurrean, aurrez aipaturiko lege organikoan aurreikusten diren zehaztapen eta baldintzetan erabili ahal izango dituzte eskaera posta elektronikoaren bitartez zegama.aizkorri@gmail.com helbidera bidaliz.

KAMISETA DISEINU LEHIAKETA


NEURRIAK - TAMAÑOS - SIZE

Salomon Explore Polo M
Talla M



KAMISETA DISEINU LEHIAKETA

NEURRIAK - TAMAÑOS - SIZE



Salomon Comet Classic Tee W
Talla M